

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai urriaren 2an

Thomas Struth

Thomas Struth

- Urriak 2, 2019 - Urtarrilak 19, 2020
 - Komisarioak: Thomas Weski, arte-arduraduna, Berlin; eta Lucía Agirre, arte-arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa
 - Municheko Haus der Kunst eta Guggenheim Bilbao Museoa elkarlanean antolatutako erakusketa
-
- Thomas Struthen irudiek funtsezko gaiez ohartarazi nahi ditu ikusleak; espazio publikoa, familiako loturak, natura, kultura edo teknologia berrien mugak bezalako gaien jakinaren gainean jarri.
 - Struthen lan desberdinen artean ezartzen diren loturek azpimarratu egiten dute artistak duen gaitasuna analisisa eta gai eta bitarteko anitzetako sorkuntza fotografikoa konbinatzeko.
 - Thomas Struthen bilakaera artistikoa kezka sozialek markatzen dute: existentziaren hauskortasuna, globalizazioaren efektuak edo gizarte-egituren ezegonkortasuna dira dotorezia formalez irudikatzen dituen gaietako batzuk.
 - Erakusketan aurki daiteke gainera Struthen autorretratu bakarra (2000. urtekoa), aldi berean beste autorretratu bati begira dagoena: 1500eko Alberto Dureroren *Autorretratu*.

Guggenheim Bilbao Museoa *Thomas Struth* erakusketa aurkeztzen du; gerraondoko argazkilari europar garrantzitsuenetako baten lan berritzailean barrenako bost hamarkadako bidaia osatu bat, kezka sozialek markatutako bilakaera artistiko batean.

Thomas Struth (Geldern, Alemania, 1954) artistaren irudiek izaera bereizgarria dute, planteatzen dituzten galderengatik, eta espazio publikoa, familiako loturak, natura eta kultura edo teknologia berrien mugak bezalako gaien inguruko hausnarketa eragiten dute. Hala, funtsezko gaiak lantzen ditu Struthen, gizarte-egituren ezegonkortasuna edo giza existentziaren hauskortasuna esaterako, dotorezia formaleko irudien bitartez gai horiekiko parte-hartzea eta enpatia eraginez.

Erakusketak Struthen lehen ideiak (artistak berak bildutako artxiboko materialetan aurki daitezkeenak) eta bukatutako lan-multzoak konektatzen ditu, zeinen artean: *Toki inkontzienteak* (*Unconscious Places*), *Familia-erretratuak* (*Family Portraits*), *Publikoa* (*Audience*), *Museo-argazkiak* (*Museum Photographs*), *Paradisuko irudi berriak* (*New Pictures from Paradise*) eta *Toki hau* (*This Place*).

Bilduma horiek, aldi berean, elkarriketa bat ezartzen dute *Berlin proiektua* (*Berlin Projekt*) bezalako beste lan batzuekin; 1997an sortutako bideo-instalazio bat, Klaus vom Bruch multimedia-artistarekin elkarlanean. Beste lan-multzo berriago batzuekin ere ezartzen da lotura, *Natura & politika* (*Nature & Politics*), *Animaliak* (*Animals*) edo Lindberg ospitaleko aretoetarako sortutako paisaia- eta lore-argazkiekin esaterako.

Struthek analisisia eta subjektu eta bitarteko anitzetako sorkuntza fotografikoa konbinatzeko duen gaitasuna nabarmentzen dute lan horien arteko loturek, emaitza gisa indar handiko irudiak sortuz.

ERAKUSKETAN BARRENA

205 aretoa

1973. eta 1980. urteen artean Düsseldorfeko Arte Ederren Akademian ikasle zela, hiriko kaleak fotografiatzen hasi zen Thomas Struth; 35 milimetroko kamera batekin lehenengo, formatu handiko batekin gero. 1977an, New Yorken bederatzi hilabete igaro zituen, hiriko auzoetako kaleak fotografiatu zituen, bertako giroak atzemanaz. Hala, kalearen erditik ateratako perspektiba simetrikoki berberetik erretratatu zituen *Dey Street*, *Crosby Street* edo *West Broadway* bezalako kaleak.

Denboraren igaroaz, eta beste hiri batzuetan barneratu ahala, Struthek alde batera utziko zuen perspektiba zentrala, eta *Veddeler Brückenstrasse*, *Hanburgo 1986* bezalako lanetan garapen sozial eta ekonomikoa erakutsiko du hiri-paisaiak, modu kontzentratuan. Globalizazioaren efektuak, XX. mende amaierako hazkunde azkarreko ekonomiak eta munduko biztanleen hazkundea dira *Toki inkontzienteak* (*Unconscious Places*) obra multzoan bildutako fotografien gaiak. Hiri-egituretan grabatzen diren gizarte-prozesu inkontzienteek uzten dituzten ageriko aztarnei egiten die erreferentzia bildumaren izenburuak.

Areto honetan bertan ikus daitezke, gainera, 1980ko hamarkadako hastapenetan fotografiatzen hasi zen familia-egiturak. Düsseldorfeko lagun psikoanalista batekin abiatutako elkarlanean dauka hasiera *Familia-erretratuak* (*Family Portraits*) bildumak. Ingo Hartmann psikoanalista familiako argazkiak eramateko eskaera egiten zien pazienteei, terapiaren parte gisa. Proiektu bateratu batean, irudi horietako hirurogei aukeratuko zituzten Hartmannek eta Struthek, eta horiek erreproduzitu eta handiagotuko ditu Struthek gero, kopia zuri-beltz uniformeak lortu arte. Lan hori bilakatuko da *Familia-erretratuak* bildumaren oinarri; erretratuok 1980ko hamarkadaren erdialdean sortuko dira, Edinburghen eta Yamaguchin (Japonia) egindako egonaldietan harrera egin zioten pertsonen eskerrak agertzeko modu gisa.

Saio formalen emaitza dira erretratuok, *Hirose familia, Hiroshima 1987* (*The Hirose Family, Hiroshima 1987*) edo berriagoa den *Iglesias familia, Donostia 2015* (*The Iglesias Family, San Sebastián 2015*) kasu, eta saio horietan kamerara ohitzen dira modeloak. Interpretazio desberdinetara irekitzen dira irudiak, bai familiako kideen antzekotasun fisikoak eta bai beren gizarte-testuingurua erakutsiz; irudi horietan, subjektuetako bakoitza norbanako gisa eta aldi berean familia-egiturako parte gisa atzematea lortzen du Struthek.

206 aretoa

Thomas Struthen artxiboko materiala da nagusi areto honetan, hala nola, artistaren lan-materialak, fitxak, zirriborroak, bere erakusketetako gonbidapen, poster eta instalazioen argazkiak, eta baita irudi goiztiarrak, muntaiak, pinturak, ikerketa fotografikoak, koadernoak, ikerketa-materialak, irakurketak, entzuketak eta komisarioekin eta beste artista batzuekin izandako posta-trukea ere. Artxibo hori oso gutxitan aurkeztu izan da jendaurrean: honako hau erakusten den bigarren aldia baino ez da.

Erakusten den artxiboko materialen hautaketak artistaren lan-prozesuen ikuskera kronologiko osatu bat ematen du, eta bai bere obraren bilakaerarena ere. Artxiboko irudiekin batera erakusten dira azken hamarkadetan egindako argazki ikusgarrietako batzuk, adibidez: *Disekzio-gela, Leibniz IZW, Berlin 2017* (*Sektionshalle, Leibniz IZW, Berlin 2017*) edo *Akuaria, Atlanta 2013* (*Aquarium, Atlanta 2013*).

207 aretoa

1980ko hamarkadaren amaieran *Museo-argazkiak* (*Museum Photographs*) ateratzen hasiko da Thomas Struth, bidea emango diotenak pinturarekiko duen pasio zaharra argazkigintzarekin bateratzeko. Artelan historikoen eta lan horien ikusleen arteko harremana aztertzen dute irudi horiek, iragana eta orainaldia bateratuz. Hala, Guggenheim Bilbao Museoko bisitariak aukera izango dute obra hauetan Chicagoko Art Institute-ko publikoari erreparatzeko, 1990. urtean Gustave Caillebotten *Parisko kalea; egun euritsu bat* (*Rue de Paris, temps de pluie, 1877*) lanari begira ari dena.

Aretoan aurki daiteke, baita, Struthen autorretratu bakarra (2000. urtekoa), aldi berean beste autorretratu bati begira ari dena: Alberto Dureroren *Autorretratu* (1500. urtea); Municheko Pinakoteka Zaharrean dago kokatua Struthen autorretratu bakar hori, 1999. urtean *Museo-argazkiak* gaiari ekin ondoren. Bildumako irudiek beste ikuspuntu eta ikuspegi batzuk dauzkate oraingoan, *Publikoak* (*Audiences*) saileak, eta *Tokioko Museo Nazionale, Tokio 1999* (*Tokyo National Museum, Tokyo 1999*) bezalako lanetan Eugène Delacroixen *Askatasuna herria gidatzen* (*La Liberté guidant le peuple, 1830*) erakusten da Frantziatik kanpo erakutsi den aldi gutxietako batean. Obra antzetzoki zinematografiko batean aurkezten da kasu horretan, objektu historiko-kultural ezezaguna bailitzan.

Franca Fallettik (Florentziako Akademiako Galeriako zuzendariak) Thomas Struth eta beste artista batzuk gonbidatu zituen 2004. urtean Michelangeloren *David* eskulturaren omenezko obra bat gauzatzera, eskultura ezagun horren 500. urteurrenean. Struthen egindako argazkian galeriako bisitariak ageri dira *David* eskulturari begira, zeina ez den, ordea, eszenan erakusten. Aurrez landutako *Museo-argazkiak* bildumarekiko ikuskera-aldaketa horrek (ikuspuntua ikusleek obrarekiko duten erreakzioetan jartzen duena) *David* eskulturaren denboraz kanpoko balioa erakusten du egiaz, eta baita egun oraindik publikoarengan duen efektua ere. Lan horiek *Publikoa* multzokoaren parte dira.

Leonardo da Vinciren *Benois Madonna* (1478-1480, San Petersburgoko Hermitage Museoa) lanari eta Diego Velázquezen pinturari (Madrilgo Pradoko Museoa) begira dauden pertsonen beste lehen plano batzuekin jarraituko du Struthen proiektua. Florentzian erregistratutako zenbait irudi hartzen du erakusketak, eta bai Madrilan hartutako batzuk ere.

209 aretoa

1998an Australiako ipar-ekialdeko oihan tropikala fotografiatu zuen Thomas Struthen, eta, gero, Txina, Japon, Alemania, Brasil, Peru eta Amerikako Estatu Batuetako oihan eta jungla tropikalei ere atera zizkien argazkiak. *Paradisuko irudi berriak* (*New Pictures from Paradise*) lan-multzoak (Struthen berak bere obra intuitiboenentzat daukanak) pertzepzio sentzorial soil bat bilatzen du, toki jakin batean eta denbora jakin batean identifikatu edo klasifikatzetik haratago.

203 aretoa

1997an *Berlin projektua 1997* (*Berlin Projekt 1997*) sortuko zuen Thomas Struthek Klaus vom Bruch multimedia-artistarekin batera; munduko leku desberdinetan eszenak grabatuko dituzte bi artistek, modu independentean, gero materiala modu bateratuan editatzeko. Kamera finkoen bidez filmatutako eta jendetza biltzen duten irudi horietan desagertu egiten da ia-ia norbanakoa, edo oso modu iragankorrean hautematen. Jatorrizko soinua duten lau proiektiotan kultura desberdinetako eguneroko eszenak irudikatzen dira, hiri handiak hain berezkoak dituen fenomenoekin batera, abiadura bizia eta ausaz ematen diren topaketak kasu. Bildumak toki exotikoetarako sarbide erraza eta turismo masiboaren aroko bidaiak lantzen ditu, eta bai opor-garaiko argazki mordoa ere, gizarte-fenomeno gisa.

Areto honetan erakusten da, baita, gizakiak eraikitako paisaia artifizialen bilduma bat; horien adibide da Disney etxeak Anaheim-en eraikitako lehen jolas-parkea, Walt Disneyk berak diseinatu zuena Kopenhage hiriko Tivoli lorategietan inspirazio hartuta. Amets egiteko toki arketipiko horietako sei panoramikatan ez du ikono ezaguterrazik sartuko Struthek, eta gehiago ardaztuko da paisaietan: mendiak, atrakzioak, etab. Multzo handiago baten barruan sartuko dira argazki horiek, *Natura & politika* (*Nature & Politics*) izenpean; aurrerapenaren, globalizazioaren eta teknologiaren mugak aztertzen ditu multzo zabalago horrek.

202 aretoa

1990eko hamarkadaren hasieran Winterthur hiriko Kunstmuseum-eko Dieter Schwarz zuzendariaren gonbita onartuko du Thomas Struthek, bere argazkiekin hiriko Lindberg ospitaleko gelak apaintzeko. Struthek (bisitetan zehar ospitaleratutako pertsonekiko enpatia sentituko duenak) eskualdeko paisaia eta loreak fotografiatu eta oheen parean esekiko ditu argazkiok, pazienteek ikusteko moduan. Oheburu bakoitzean, gainera, landareen lehen planoak kokatuko ditu Struthek, horien edertasun eta zaurgarritasun osoa erakutsiz, pazientearen egoera jakinaren metafora bailiran. Gerora *Dandelion Room* (Txikoria-belarraren gela) monografian jaso ziren proiektu horretako irudiak 2001. urtean.

2009an *Toki hau* (*This Place*) proiektuan parte hartzeko gonbita jaso zuen Thomas Struthek Frédéric Brenner-en eskutik; Israelek eta Zisjordaniak toki eta metafora gisa duten konplexutasuna aztertzeraz bideratu zen proiektua, nazioarteko hamabi argazkilariren begien bitartez.

Betekizun horrek bidea emango dio Struthi eskualdeko bizi-baldintzen eta bertako biztanleen maila desberdinetako erretratu bat osatzeko, bidaia desberdinetan egindako irudien bitartez. Fotografia horien adibide dira *Faez familia, Rehovot 2009* (*The Faez Family, Rehovot 2009*), *Shuafat-eko errefuxiatu-eremua, Jerusalem Ekialdea 2009* (*Shuafat Refugee Camp, East Jerusalem 2009*) edo *Bental mendia, Golaneko gainak 2011* (*Mount Bental, Golan Heights 2011*) eta *Ramallahko aldiriak, Ramallah 2011* (*Outskirts of Ramallah, Ramallah 2011*).

Aretoaren erdigunean ikus daiteke *Irakurri hau ikusten duzun lehenengo aldia balitz bezala. Frank Bungarten bere gitarra ikasleekin Luzernako Musika Goi Eskolan, Berna 2003* (*Read This Like Seeing It for the First Time. Frank Bungarten mit seiner Gitarrenklasse an der Hochschule Luzern, Bern 2003*), Thomas Struthek 2003an Bernako Bienalerako sortutako bideo-instalazioa. Bideoan bost gitarra-eskola erakusten dira, bakoitza ordubeteko iraupeneko. Luzernako Musika Eskolako Frank Bungarten musikari alemaniar

ezagunaren eskolak dira, aldi berean bi kamerarekin grabatuak. Obrak modu trinkoan erakusten du ikaskuntza-prozesuaren intentsitatea eta irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana arte-garapeneko testuinguruan. Perspektiba eta ikuskera desberdin bi erakusten dira bi grabazioetan, pantaila banatuetan proiektatuak.

204 aretoa

NASAKo Espazioaren Museoa bisitatuko du Thomas Struthek 2007an lehen aldiz, eta esperientzia hori pizgarri izango zaio agentzia espazialeko sarbide zaileko espazioetara sartu eta horiek fotografiatzen saiatzeko. 2008an eta 2013an NASAKo zenbait tokitan irudiak hartu ondoren, 2017an lortuko du flotagarritasun neutroko igerilekuko irudiak hartzea, tripulazioak trebatzeko erabiltzen dena espazioko baldintzak eskala errealean erreproduzitzen dituen maketekin. Areto honetan daude argazki ikusgarri horietako hiru.

208 aretoa

Natura & politika (Nature & Politics) proiektua 2007an abiatuko zuen artistak, eta enpresa eta ikerketa-laborategietako teknologia aurreratuen garapena erakusten duten irudiek osatzen dute. Industria aeroespaziala, energia-ekoizpena, medikuntza-ikerketa, adimen artifizia eta errobotika dira Struthen intereseko etorkizuneko teknologietako batzuk. *Plataforma erdi-urperagarria, DSME ontziolak, Geoje Island 2007 (Semi Submersible Rig, DSME Shipyard, Geoje Island 2007)* edo *Z-Pinch plasma-laborategia, Weizmann Institute, Rehovot 2011 (Z-Pinch Plasma Lab, Weizmann Institute, Rehovot 2011)* lanek aurrerapenaren, globalizazioaren eta teknologiaren mugak eta irudikagarritasuna aztertzen dituzte. Garapenaren metafora dira askotan irudiok, non teknologia jada ez den hain nabarmen edo ageriko ikusten, baizik eta adituek baino uler ez dezaketen konplexutasunez.

Bukatzeko, artistaren azken lana erakusten da aretoan: *Animaliak (Animals)*; artistak 2016an hasitako natura hilen bilduma bat, non hildako animaliak (hegaztiak, ugaztunak) diren arretaren erdigune. Modu naturalean hil ondoren Berlingo Zoologia eta Basa Bizitzaren Ikerketako Leibniz Institutura eramaten dituzten animaliak dira, artistak sentikortasun handiz erretratatzen dituenak, modu berri eta harrigarri batean. Obra horien bidez bizitzaren beraren duintasuna ukitzen du Struthek, eta baita tradizio humanista eta eboluzioaren inguruko galderak ere. “Saiatu naiz animaliak modu duin eta ederrean irudikatzen. Amore ematearen ideia interesatzen zait: nekez eraiki duzun zirkua, antzerkia, bertan behera geratzen da. Irudi hauek zaplaren modukoak izan beharko lirateke, heriotza hor dela oroitarazteko deia”.

DIDAKTIKA

Erakusketa honetako eremu didaktikoak, «Begirada isila eta oihartzun egiten duen artea» izenekoak, zenbait gako eskainiko ditu Thomas Struthen ideiei eta sorkuntza-prozesuei buruz; esate baterako, bere serieetako gaiak (zeinak behin eta berriro agertzen baitira bere ibilbidean), familiarekiko interesa eta jendeari begira dagoen jendeari begiratzea.

Struth oso musikazalea da. *Didaktika* proiektuan, argazkilariek eta musikariek antzeko sorkuntza-prozesuak erabiltzen dituztela erakutsiko da; musika sortzen laguntzen duten aplikazioekin interakzioan ere aritu ahal

izango da jendea. Hezkuntza-esperientzia osatzeko, Ralph Goertzek Struthi buruz egindako filmaren zati batzuk proiektatuko dira.

Jarduerak

Thomas Struthekin solasean (irailak 25)

Thomas Weski, erakusketaren komisarioetako bat, Thomas Struthekin solasean arituko da atzera begirako honi buruz. Erakusketak lau hamarkadatan baino gehiagotan egin duen lana hartzen du barnean, eta, obrez gain, haren artxibo pertsonaleko ikerketa-materialen bilduma garrantzitsua biltzen du.

Hausnarketa partekatuak

Museoko profesionalek egindako bisitaldi eksklusiboak.

- Arte-arduradunen ikuspegia: Lucía Agirre, Museoko arte-arduraduna eta erakusketaren ko-komisarioa (urriak 9)
- Funtsezko kontzeptuak: Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko zuzendariordea (urriak 16).

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Tailerra: *Argazkilariak argazkilariari* (azaroak 22 eta 23)

Bi saioko tailer honetan, Begoña Zuberok Struthen lana aztertuko du, bi argazkilariak partekatzen dituzten alderdietako batzuetatik abiatuta: hiriko paisaia hutsekiko grina, zuri-beltzeko arkitekturak, edo formatu handia.

Erakusketari amaiera emateko hainbat ekitaldi antolatu dira artistaren lankidetzarekin argazkilaritza eta musika uztartuz

Thomas Struthek zuzendutako tailerra (2020ko urtarrilak 17):

Artista alemanak aholkuak eta orientabidea emango die argazkilaritza eta/edo artea ikasten ari diren ikasleei saio honetan. Parte-hartzaileak museoko arte-arduradunek eta Thomas Struthek berak aukeratuko dituzte.

Frank Bungartenen kontzertua (2020ko urtarrilak 17)

Frank Bungarten musika klasikoa lantzen duen gitarrista ezagunak publiko orokorrari zuzendutako kontzertu bat eskainiko du.

Musikan aritzeko artea (urtarrilak 18)

Gitarrista ezaguna eta irakaslea den aldetik, Frank Bungarten-ek tailer bat zuzenduko du musikarientzat, gitarrista-jotzaileentzat nahiz bestelako instrumentuak jotzen dituztenentzat.

Unibertsoa dezifratzen hizketaldia (urtarrilak 18)

James Beacham partikulen fisika arloan aditu gisa dihardu Ikerketa Nuklearreko Europar Erakundean (CERN) eta unibertsoaz, sormenaz, jakinminaz eta desioaz duen ikuspegi berezia partekatuko du bakarriketa oso pertsonala eta fisikari buruzko ohiko hitzaldi klasikoagoa uztartuz.

sixty1strings taldearen kontzertua (urtarrilak 19)

Musika klasikoa jotzen duen sixty1strings taldeak —Ekaterina Solovey, Konstanze Kuss eta Negin Habibi musikariek osatutakoa— harpa, mandolina eta gitarra hartzen dituen kontzertua eskainiko du Thomas Struth-i eskainitako erakusketari amaiera ezin hobe emateko.

Katalogoa

Irudidun katalogo batek osatuko du erakusketa, Thomas Weski, Jana-Maria Hartmann eta Ulrich Wilmes nazioarteko adituek idatzitako saiakerekin eta Okwui Enwezor-ek Thomas Struth-i egindako elkarrizketa osatuarekin. Testu horiek Thomas Struth-en ibilbideari, sormen-prozesuari eta ideien munduari buruzko xehetasunak argituko dituzte.

Azaleko irudia

Thomas Struth

Eleonor eta Giles Robertson, Edinburgo 1987 (Eleonor and Giles Robertson, Edinburg 1987)

Tinta-zurrustazko inprimaketa

66 x 84 cm

© Thomas Struth

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsak erabiltzeko irudiak
Thomas Struth
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudien zerbitzua sarean

Museoko webguneko prentsa atalean (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratzeko aukera dago, bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko, bai erakusketenak eta bai eraikinarenak. Konturik ez badaukazu, erregistratu eta behar duzun materiala deskargatu ahal izango duzu. Erabiltzailea bazara, idatzi zure sarbide-izena eta pasahitza eta sartu zuzenean irudien deskargara.

- Mailegatutako irudiak *Thomas Struth*en erakusketari lotutako publizitate editorialerako bakarrik erabili beharko dira. Erakusketa 2019ko urriaren 2tik 2020ko urtarrilaren 19ra arte egongo da publikoari irekia Guggenheim Bilbao Museon.
- Irudiak osotasunean erreproduzitu beharko dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gauzatu gabe, azaletan izan ezik; maketak artistaren estudioaren oniritzia izan beharko du ezinbestean.
- Thomas Struthen copyright kredituak agertu beharko du erreprodukzio guztien aldamenean, "© Thomas Struth" bezala.
- Sarean argitaratutako irudiak dagozkien segurtasun elektronikoko neurriekin babestu beharko dira. 1000 pixeletako gehieneko bereizmena izan ahalko dute irudiek, beren alderik luzeenean. Sareko argitalpeneko artxiboa txertatua egon beharko da, eta ezingo da deskargatzeko eman.

Informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoren prentsa sailarekin, +34 944 359 008 telefono-zenbakira deituta edo media@guggenheim-bilbao.eus helbide elektronikora idatzita.

Thomas Struth
Crosby Street, Soho, New York 1978
Tinta-zurrustazko inprimaketa
66 x 84 cm
© Thomas Struth



Thomas Struth
Hannah Erdrich-Hartmann eta Jana-Maria Hartmann, Düsseldorf 1987 (Hannah Erdrich-Hartmann und Jana-Maria Hartmann, Düsseldorf 1987)
Zilar-gelatinazko kopia
66 x 84 cm
© Thomas Struth



Thomas Struth
Kyoko eta Tomoharu Murakami, Tokio 1991 (Kyoko und Tomoharu Murakami, Tokyo 1991)
Tinta-zurrustazko inprimaketa
151 x 187 cm



© Thomas Struth

Thomas Struth

Ekilore biziak - 1. zk., Winterthur 1991 (Helle Sonnenblumen – Nr. 1, Winterthur 1991)

Koloretako inprimaketa

84 x 66 cm

Viehof bilduma

© Thomas Struth



Thomas Struth

Pergamo museoa 1, Berlin 2001 (Pergamon Museum 1, Berlin 2001)

Koloretako inprimaketa

197,4 x 248,6 cm

© Thomas Struth



Thomas Struth

Paradisua 26, Palpa, Peru 2003 (Paradise 26, Palpa, Peru 2003)

Koloretako inprimaketa

211,5 x 168,6 cm

© Thomas Struth



Thomas Struth

Pasaje de 27 Setiembre, Lima 2003

Tinta-zurrustazko inprimaketa

72 x 84 cm

© Thomas Struth



Thomas Struth

Publikoa 07, Florentzia 2004 (Audience 07, Florenz 2004)

Koloretako inprimaketa

179,5 x 288,3 cm

Kunstsammlung Nordrhein-Westfalen, Düsseldorf

© Thomas Struth



Thomas Struth

Gas-kanpaia, Edinburgoko Unibertsitatea 2010 (Chemistry Fume Cabinet, The University of Edinburgh 2010)

Koloretako inprimaketa

120,5 x 166 cm

Eskaintza: Marian Goodman Gallery

© Thomas Struth



Thomas Struth

Bental mendia, Golaneko gainak 2011 (Mount Bental, Golan Heights 2011)

Tinta-zurrustazko inprimaketa

129,2 x 161,5 cm

Eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin | Paris | London

© Thomas Struth



Thomas Struth

Mendia, Anaheim 2013 (Mountain, Anaheim, 2013)

Koloretako inprimaketa

212,1 x 332,4 cm

MAST Foundation Collection

© Thomas Struth



Thomas Struth

Eskala errealeko maketa 2, JSC, Houston 2017 (Full-scale Mock-up 2, JSC, Houston 2017)

Tinta-zurrustazko inprimaketa

208 x 148,5 cm

© Thomas Struth



Thomas Struth

Zebra (Equus grevyi), Leibniz IZW, Berlin 2017

Tinta-zurrustazko inprimaketa

160 x 223,5 cm

Eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin | Paris | London

© Thomas Struth

